

2010-2011 IKASTURTEA



PARTAIDEAK: JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA

Norentzat antolatua: Ordiziako Jubilatua, Eguneko zentrokoak, Goienetxe Fundaziokoak eta beste batzuk

Gizonezkoak %30 Emakumezkoak %70

Hartzailearen adina: Haurrak Nerabeak Gazteak Helduak **Nagusiak**

HELBURUAK:

- Gorputzaz gozatu.
- Lotsaren beldurra gainditu.
- Besteen aurrean aritzeko ausardia lortu.
- Aiton-amonak baloratu.
- Ikasleen sormena eta lana baloratu.

DATA:

1. saioa: 2011ko Otsailaren 3an, 15:30ean: "MUSIKAK DIO".
2. saioa: 2011ko Maiatzaren 18an, 15:30ean: "GAFOIERREN TRIKITIXA".

BALIABIDEAK:

1. SAIOA: Musika aparatua, mahai bat, bi banku, bi biolin, zeharkako txirula, armonika, baloiak
2. SAIOA: 8 aulki, sokatirako soka, soka motza, baloia, kolorezko kartulinak, zentroko aretoa eta megafonia.

DESKRIBAPENA:

Ikasleek antzerki-emanaldi pare bat prestatzen dituzte jubilatuei eskaini. Ondoren, jubilatuek eta ikasleek beraien galderak eta asmoak prestatzen dituzte.

METODOLOGIA:

Ikastolako ikasleek urtero prestatzen dituzten antzerki-emanaldiak edo esketxak jubilatuen aurrean antzeztuko dituzte bi saiotan, otsailean eta maiatzean.

- 1.-Ikastetxeek, beraien programa barruan prestatzen dituzten lanak kanpoan erakusteko egokitzen dituzte.
- 2.-Jubilatuei gonbidapena egiten zaie.
- 3.-Jubilatuen egoitzan lekua prestatzen da.
- 4.-Emanaldia bukatzean galderak egiteko aukera dago.

BALORAZIOA:

1. SAIOA: Oro har balorazio positiboa egiten dugu. Honelako jarduerak oso baliagarriak dira urduritasunari aurre egiteko. Hasi aurretik ikasleak urduri zeuden baina gero oso gustura gai izan zirelako jende aurrean egin beharrekoa egiteko.

Bestaldeikasleak oso motibatuta zeudela esan behar dugu.

Gonbidapena prestatu genuen ikastetxeetan eta Jubilatuenean banatzeko.

Ordua goizegi izan zen eta jende gutxi hurbildu zen ekintza ikustera.

Eguneko Zentroari gonbidapena momentuan bertan egin zitzaion eta ekintzak beranduago hasi behar izan zuen.

2. SAIOA: Errespetua lantzea izan da helburua. Mezua ondo iritsi zaie bai gazteei bai helduei. Jarraian ikusi beharko dugu ikasleek praktikan jartzen duten.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK:

1. SAIOA: Hasieran jende gutxi zegoen ikusleen artean. Gero gehiago etorri ziren. Komeni da abisuak behar bezala pasatzea eta beste erakunde batzuetara bidaltzea. Adibidez Gureak taldeari.

Jubilatuek badute euren dinamika eta ordu hori ez da oso aproposa etortzeko.

Motibazio handia behar dute.

Ikasleen familiakoak gonbidatzea merezi du jende gehiago egoteko bertan, ordua aldatzeko aukerarik ez badago.

2. SAIOA: Zein material behar den, non egon behar den zain, eta abar aurretik hobeto antolatu eta koordinatu

2011-2012 IKASTURTEA



“Eskailera baten istorioa”

PARTAIDEAK: JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA

- Jakintza Ikastolako D.B.H.2 - Mainer Bartolome
- Jubilatuenak

Nori zuzentzen zaio: Jubilatuenak (11 pertsona), Eguneko Zentrokoak (22 pertsona), Jakintza Ikastolako ikasleen guraso eta aiton-amonak (44 pertsona)

Gizonezkoak % 10 Emakumezkoak % 90

Hartzailearen adina: Haurrak Nerabeak Gazteak Helduak Nagusiak

HELBURUAK:

- Gorputzaz gozatzea.
- Lotsaren beldurra gainditzea.
- Besteen aurrean aritzen ausartzea.
- Aitonak eta amonak baloratzea.
- Ikasleen sormena eta lana baloratzea.

DATA: Martxoaren 22, 15:30ean

BALIABIDEAK:

Jubilatuaren zentroko aretoa, bankua, mahaia, aulkia eta arropa, publizitatea (zentroan eta ikastetxean).

DESKRIBAPENA:

Ikasleek ikasturtean zehar prestatutako antzerkia eskaintzen diete jubilatuei.

METODOLOGIA:

Ikastolako ikasleek urtero prestatzen dituzten antzerkiak edo esketxak jubilatuei eskainiko zaizkie, belaunaldien arteko elkartrukea uztartuz:

- 1.- Ikastetxearen aldetik, beren programan prestatzen dituzten lanak kanpoan emateko egokitzen dituzte.
- 2.- Jubilatuei gonbidapena luzatzen zaie.

3.- Jubilatuen egoitzan leku egokia prestatzen da (aretoa).

4.- Emanaldiaren ondoren elkarrizketa bat sortzen da.

BALORAZIOA:

Gustura aritu gara. Elkarlana, memoria, norberarekiko konfiantza, presentzia, beldurrei aurre egin, nerbioak kontrolatu... atal asko dira landutakoak. Aipatu antzerkia denen artean sortua izan dela.

Ekintza hau aprobetxatu da une berean Ordizia Hiri Hezitzailea egitasmoan eta Jubilatuen Elkarteko San Jose eguneko programazioan txertatzeko. Ondo dago Jubilatuek gazteekin ekintzak konpartitzea, baina ekintza hau gehiago izan da jasotzea, konpartitzea baino.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK:

Lan sakona egiteko klase orduak motz geratzen dira.

Ikasleek antzerkiaz disfrutatu ahal izateko klaseak hilabete pare bat luzatzea komeni da.

Gazteek eramaten duten pertsona helduen irudia ezberdina da ekintza hauekin konpartitzen dutenean, saioa hartu-eman soila bihurtzen denean baino. Ekintza honetan helburu "hezitzailea" agian ez da garbi geratzen, gazteek eraman dezaketen helduen irudia pertsona mendekoak direla izan baitaiteke, eta hori ez da errealitea.

Ekintza bakoitzaren ostean lanketa egin beharko litzateke ikaskuntza zentroetan, gazteei jubilatuen irudia plurala dela erakutsiz, hau da, ez direla soilik pertsona dependienteak, baizik eta adineko pertsonen egoera oso ezberdina dela kasurik kasu, eta edozein modutan, prozesu ebolutibo bat dela, zeinetan iristen den amaierako egoera bat non pertsona mendekoak bihurtzen direla, baina horrek ez du esan nahi jubilatuz guztiak pertsona mendekoak direnik. Lanketa hau egin beharko litzateke.

2012-2013 IKASTURTEA



PARTAIDEAK: JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA

25 publikoan

DBH ikasleak - Jakintza

Nori zuzentzen zaio: Pertsona nagusiei baina irekia da.

Eguneko zentrokoak eta Goienetxeko talde bat gehi beste 3 pertsona etorri ziren ekintza ikustera

Gizonezkoak % 10 Emakumezkoak % 90 (publikoa)

Hartzailearen adina: Gazteak, Nagusiak

DATA: 2013ko ekainaren 6a

BALIABIDEAK:

Dekoratua, sendagile etxean dauden hainbat jantzi eta tresna
Jubilatuenerako areto nagusia.

BALORAZIOA:

Gustura gelditu ginen. Antzerkia laburra izan zen, 30 minutu ingurukoa, baina ikasleen jarrera ona izan zen eta gogoz saiatu ziren.

Entzuleen aldetik ere jarrera ona sumatu genuen.

Partaidetza txikia izan zen, nahiz eta publikitaterako kartelak egin eta zentroko hileko eskuliburuskan horren berri eman.

Ekintzak 15 minutu bakarrik iraun zuen. Ordua ere zen oso egokia jendea erakartzeko eta ia ia Eguneko zentrokoek eta Goienetxekoek bakarrik parte hartu zuten. Antzezteko modua hobetu daiteke (hitzak baju, korrikan esanda, motza, gaia ere ...).

Entzuleen ezaugarriak kontuan izanik (aniztasun funtzionala), ekintza ez zen oso egokia izan.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK:

Oholtza txiki samarra suertatu zen.

Ordu horretan ohiko ikusleak Eguneko zentrokoak eta Goienetxekoak izaten direnez, euren ezaugarriei egokitutako antzezlanak prestatu dezakete ikasleek, antzezteko modua ere hobetuz (aniztasun funtzionala kontuan izanik)

2013-2014 IKASTURTEA



PARTAIDEAK: JAKINTZA IKASTOLA, ZUHAIZTI ZENTROA

DBH2ko ikasleak (20 – 9 neska) eta 25 ikuslegoan.

Nori zuzentzen zaio: Irekia da. Pertsona nagusiei.

Eguneko zentroko partaideak eta zaindariak, Garaguneko talde bat eta 2 monitore, eta 5 pertsona etorri ziren ekintza ikustera.

Gizonezkoak % 10 Emakumezkoak % 90 (publikoa)

Hartzailearen adina: Nerabeak eta nagusiak.

HELBURUAK:

- Antzerkiaren bidez, belaunaldien arteko harremana indartzea.
- Antzezlanaren egiterakoan partaideen ezaugarriez egokitzea.
- Antzerkiaren bidez aniztasunaren ideiaz hausnartu eta gizartean duen garrantziaz jabetzea.
- Elkarrekin ondo pasa eta elkarrekin pertsona gisa aberastea.

DATA: 2014ko maiatzaren 14a

BALIABIDEAK:

Zuhaizti zentroko areto nagusia.

Jakintzako antzerki taldea.

DESKRIBAPENA:

Ikasleek antzerki-emanaldi pare bat prestatzen dituzte jubilatuei eskaintzeko.

Ondoren, jubilatuek eta ikasleek beraien galderak eta iritziak trukatzeko dituzte.

METODOLOGIA:

BALORAZIOA:

Antzezlanaren partaideen ezaugarrietara (aniztasun funtzionala) ia baino egokituago izan da.

Partaidetza aldetik, ordu horretan normalean eguneko zentrokoak eta garagunekoak izaten direnez, zuhaiztikoek ia ez dute parte hartu. Iraupena berriz, oso motza izan da (15 minutu). Kontuan hartuz, eguneko zentrokoei jaistera eta igotzeak denbora eta lana handia suposatzen diela, 15 minutuko ekintza batean parte hartzeak ez die konpentsatzen.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK:

Antzerkia beste ekintza batekin lotzea emanaldia osatzeko, oso motza ez geratzeko.